

BARNE FUNTZIONAMENDURAKO
ARAUDIA

SANTA MARIA, MARIANISTAS,
IKASTETXE KATOLIKOA

DONOSTIA

BARNE FUNTZIONAMENDURAKO ARAUDIA

Orrialdea

0. - Aurretiko titulua.....	2
1. - 1. titulua. HEZKUNTZA-ELKARTEA	
Sarrera.....	4
1. kapitulua.- Titulartasunaren jabe den Erakundea.....	7
2. kapitulua.- Ikasleak.....	8
3. kapitulua.- Irakasleak.....	9
4. kapitulua.- Gurasoak.....	10
5. kapitulua.- Administrazio eta Zerbitzuetako langileak.	12
6. kapitulua.- Beste.....	13
2. - 2. titulua. GOBERNU ETA KUDEAKETA-ORGANOAK.....	14
1. kapitulua.- Norbakarreko organoak.....	14
2. kapitulua.- Organo bilduak.....	18
3. - 3. titulua. HEZKUNTZA-KOORDINAIZORAKO ORGANOAK... 25	
1. kapitulua.- Norbakarreko organoak.....	25
2. kapitulua.- Organo bilduak.....	27
4. - 4. titulua. ELKARBIZITZAREN UHERDURA	
1. kapitulua.- Arau orokorrak.....	30
2. kapitulua.- Ikasleak.....	30
3. kapitulua.- Hezkuntza-Elkarteko gainerako kideak.....	31
XEDAPEN ERANTSIAK.....	33
1. eranskina. Irakasle berrien hautaketa eta kontratazioa.....	34
2. eranskina. Eskola Kontseiluko kideak hautatzeko arauak.....	35

AURRETIKO TITULUA

1. art. - Helbidea eta erregistroa.

Santa Maria, Marianistak, Ikastetxe Katolikoak Donostia hirian, Aldapeta kaleko 17. zenbakian du bere helbidea. Telefono zenbakia 943 / 46 10 55, Fax zenbakia 943 / 47 33 58 eta helbide elektronikoa csmss@aldapeta.net ditu. Hezkuntza eta Zientzien Ministerioko Erregistroan 20004125 zenbakiarekin dago inskribaturik.

2. art. - Ikastetxe Integratua.

Santa Maria, Marianistas, Ikastetxe Katolikoa, gizarte ekimeneko ikastetxea da, integratua; bertan ondoko hezkuntza mailak irakasten dira:

+ Haur Hezkuntza: behin-betiko baimenarekin, 1990ko ekainaren 26ko Aginduaren arabera (90-7-17ko EHAako 143. zbk.).

+ Lehen Hezkuntza 1992ko abenduaren 1eko Aginduaren arabera (93-1-11ko EHAako 005 zbk.).

+ Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1996ko urtarrilaren 24ko Aginduaren arabera (96-2-22ko EHAako 038 zbk.).

+ Giza eta Gizarte Zientzien Batxilergoa, zein Natura eta Osasun Zientzien Batxilergoa 1996ko urtarrilaren 24ko Aginduaren arabera (96-2-22ko EHAako 038 zbk.).

Ikastetxea etapa guztietan dago kontzertaturik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastola eta Ekimen Sozialeko Ikastetxeekin batera Kontzertuen Araudia aplikatzen baitzaio. Araudi hau ekainaren 10eko 137/86 dekretuan promulgatu zen, eta 1986ko ekainaren 16ko EHAako 117 zbk.an argitaratu.

3. art. - Idearioa.

Ikastetxearen Idearioak edota Berezko Izaerak, bere nortasuna eta familiei eskaintzen dien hezkuntza mota definitzen du. Agiri honek, soilik hezkuntza eta pedagogiaren arloak arautzen dituzten bi tresnak inspiratu eta baldintzatzen ditu: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, eta antolaketari dagozkion arloak: Barne Funtzionamendurako Araudia.

Hezkuntza-Elkarteko kideak erantzunkideak dira Ikastetxearen Idearioaren aplikazioan.

Edozein kasutan, begirune oso izango dute Idearioarekiko, Ikastetxearen helburuak lortzea posible izan dadin.

4. art. - Ikastetxe konfesiozkoa.

Santa Maria Ikastetxe Katolikoa, konfesiozko ikastetxe katolikoa da, Zuzenbide Kanonikoko Kodearen 803 kanonak dioenaren arabera.

5. art. - Hezkuntza-Elkartea.

Ikastetxeko helburuak lortzeak, guztien aldetik asmo eta konbentzimenduak bateratzea eskatzen du. Hori horrela izanik, gure Ikastetxeak bere ahalegin guztiak Hezkuntza-Elkartea aldi berean hezkuntzaren subjektua eta egilea izan dadin zuzentzen ditu.

Hezkuntza-Elkarte hau, berau osatzen duten gizabanako eta talde desberdinen partaidetza koordinatu eta arduratsuaren bidez eraikitzen da.

6. art. - Araudi honen helburua.

Araudi honek bi helburu nagusi ditu: alde batetik Ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendua arautzea, eta bestetik Hezkuntza-Elkartea osatzen duten guztien partaidetza

bultzatzea.

7. art. - Printzipio dinamizatzaileak

Ikastetxearen antolaketa eta funtzionamenduak, ondoko printzipioei erantzungo diete:

- a) Beronen izaera katoliko eta marianistari.
- b) Ikastetxearen Idearioan edota Berezko Izaeran azaltzen den hezkuntza-eskaintzaren erabateko gauzatzeari.
- c) Ikastetxeak Hezkuntza-Elkarte gisara duen egiturari.

1. TITULUA HEZKUNTZA-ELKARTEA

SARRERA

“Egiazko Hezkuntza-Elkarte bat eratzeak, Marianista Ikastetxeen bizitzan laguntzen duten guraso, irakasle, ikasle, administrazio zein zerbitzuetako langile eta Titulartasunaren jabe den Erakundearen ekarpen koordinatua eskatzen du.

Guztiak arduratzen dira Hezkuntza-Elkarteen funtzionamendu egokiaz guztien ongia bilatuz, Idearioko printzipioekin bat eginaz, eta Zentroko ekintzetan zein ezarritako Gobernu Organo Bilduetan parte hartuz.” (Marianista Ikastetxeen Idearioa, 15-16 zenbakiak).

8. art. - Kideak.

1. Ikastetxea Hezkuntza-Elkarte gisara dago eratua. Berau, elkarrekin erlazionatuz eta hezkuntza-lanean inplikaturik Ikastetxearen beraren helburuak elkar banatu eta aberasten dituen pertsona taldeak osatzen du.

2. Hezkuntza-Elkartearen baitan egitekoak eta erantzukizunak desberdinak dira Titulartasunaren jabe den Erakundeak, ikasleek, irakasleek, gurasoek, administrazio zein zerbitzuetako langileek eta beste laguntzaile hainbatek proiektuarekiko egiten duten ekarpen bereziaren arabera.

9. art. - Eskubideak.

Hezkuntza-Elkarteko kideek ondoko eskubideak dituzte:

- a) Pertsona bezala beren osotasunean eta duintasunean errespetatuak izatea.
- b) Ikastetxeko Idearioa, Hezkuntza-Proiektua eta Barne Funtzionamendurako Araudia ezagutzea.
- c) Ikastetxearen funtzionamendu eta bizitzan parte hartzea, Araudi honek adierazitako moduan.
- d) Ikastetxeko Zuzendariak aurrez baimenduta eta eskola-bizitzari dagozkion gaiak lantzeko Ikastetxean estamentu bakoitzak bilerak egin ahal izatea.
- e) Estamentu bakoitzeko kideek Elkartea osatzea, Legeak agindu moduan.
- f) Egoera bakoitzean dagokion Organoari modu egokian formulatutako iradokizun eta eskaerak aurkeztea.
- g) Eskubideak urratuko balira, dagokion Organoaren aurrean erreklamatzeko.
- h) Legeetan eta Araudi honetan onartzen diren beste eskubideak gauzatzea.

10. art. - Betebeharrak.

Hezkuntza-Elkarteko kideek ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Titulartasunaren jabe den Erakundearen, ikasleen, irakasleen, gurasoen, administrazio zein zerbitzuetako langileen eta Hezkuntza-Elkartea osatzen duten gainerako kideen eskubideak errespetatzea.
- d) Idearioa errespetatu, eta beren egiteko zehatzetan, idearioan betan azaltzen diren printzipioetan oinarritzea.
- c) Hezkuntza-Proiektua, Araudi hau bera eta antolaketa zein funtzionamendurako gainerako arauak errespetatzea.
- d) Ikastetxearen izen ona errespetatu eta sustatzea.
- e) Kide diratekeen Organoetako bileretara joan eta parte hartzea.

11. art. - Elkarbizitza arauak.

1. Ikastetxeko elkarbizitza arauak ondoko puntuok sustatzea dute helburu:

- a) Pertsona bere osotasunean haztea.
- b) Ikastetxearen hezkuntza-helburuak.
- c) Hezkuntza-Elkartearen garapena.
- d) Ikastetxean hezkuntza zein harreman giro ona izatea.
- e) Hezkuntza-jardunean parte hartzen dute pertsona guztien eskubideak errespetatzea.

2. Ondokook dira Ikastetxeko elkarbizitza-arauak:

- a) Hezkuntza-Elkartea osatzen duten pertsonen, eta bai Ikastetxean egiten dituzten jarduera eta zerbitzuen ondorioz Ikastetxearekin berarekin harremana duten beste pertsona edota Erakundeen osotasun fisiko eta moralarekiko, zein ondasunekiko errespetua.
- b) Desberdintasunaren aurrean tolerantzia eta elkar ez baztertzea.
- c) Harreman sozialetan zuzentasuna, batez ere jarrera eta hizkera zuzen eta errespetuzkoaren bidez.
- d) Bakoitzari dagozkion lana eta funtzioak arduraz betetzea.
- e) Hezkuntza-Elkartea osatzen duten gainerako kideen lana eta funtzioarekiko errespetua.
- f) Hezkuntza zein elkarbizitza jardueratan laguntzea.
- g) Eskola-bizitzaren garapenean zintzotasuna eta leialtasuna.
- h) Norberaren itxura eta txukuntasuna zaintzea, eta arlo honetan Ikastetxeko arauak diotena betetzea.
- i) Ohar eta zuzenketen aurrean jarrera baikorra izatea.
- j) Eraikinaren, altzarien, instalakuntzen zein materialaren erabilera zuzena egitea, hau da, beren helburuaren eta funtzionamendu arauen arabera; bai eta Ikastetxeko zenbait eremutara legokeen sarbide mugatua errespetatzea ere.
- k) Oro har, Hezkuntza-Elkartea osatzen duten pertsonen eta bertako estamentu bakoitzak, indarrean dagoen legedian eta Araudi honetan azaltzen diren betebeharrak betetzea.

12. art. - Elkarateak.

1. Hezkuntza-Elkarteko estamentu desberdinek indarrean dagoen legediaren arabera ondoko helburuekin sortu ahal izango dituzten Elkarateak:

- a) Estamentu bakoitzeko kideen eskubideak sustatzekoarekin.
- b) Beren betebeharrak bete ditzaten laguntzekoarekin.
- c) Eskolako Idearioan zein Hezkuntza-Proiektuan azaltzen diren helburuak gauzatzeko laguntzekoarekin.

2. Elkarateek ondoko eskubideok dituzte:

- a) Beren helbide soziala Ikastetxea jartzea.
- b) Etapa bakoitzeko Proiektu Curricularrean ezartzen denaren arabera Ikastetxeko hezkuntza-ekintzetan parte hartzea.
- c) Ikastetxearekin zerikusia daukaten gaiak lantzeko edota beren jarduera propioak egiten Ikastetxean biltzea, beti ere aurrez Ikastetxeko Zuzendariak baimenduta. Baimen hau, bilera edota jarduera horiek Ikastetxearen funtzionamendu normalean oztoporik eragiten ez baldin badute emango da, eta hala legokiokeenetan, trukean dirusaria eman beharko dute.
- d) Gobernu eta kudeaketa-organo bilduetarako dagokien estamentutik hautagaiak proposatzea, Araudi honetako Bigarren Tituluan esaten den moduan.
- e) Berei dagozkien gaien buruzko informazioak Ikastetxeko Organoetan eskuratzea.
- f) Egoera bakoitzean dagokion Organoari modu egokian formulatutako iradokizun eta eskaerak aurkeztea.
- g) Eskubideak urratuko balira, dagokion Organoaren aurrean erreklamatzeko.
- h) Legeetan, Idearioan eta Araudi honetan onartzen diren beste eskubideak gauzatzeko.

3. Elkarateak, Araudi honetako 10 eta 11 artikuluetan azaltzen diren betebeharrak zein elkarbizitza arauak betetzera beharturik daude, bai eta Estamentu bakoitzari dagozkion betebeharrak betetzera ere.

LEHENEGO KAPITULUA: TITULARTASUNAREN JABE DEN ERAKUNDEA.

“Mariaren Lagundiak, Marianista Ikastetxeen Titulartasunaren jabe den Erakundeak, Idearioarekiko fidelotasuna bermatzea du misio” (Marianista Ikastetxeen Idearioa, 21. zenbakia).

13. art. - Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundea.

Mariaren Lagundia - Marianistak (Zaragozako Probintzia kanonikoa) da Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundea; berau, indarrean dagoen legediak onartzen dituen izaera juridikoa, eta gaitasun zein autonomia erabatekoa dituen Erakunde Erlijioso Katolikoa da.

14. art. - Eskumenak.

Ondoko eskumenak ditu Titulartasunaren jabe den Erakundeak:

- a) Ikastetxearen Idearioa gauzatu, ezagutzera eman, beronekiko errespetua ziurtatu, eta bere eraginkortasuna dinamizatzea.
- b) Ikastetxearen lerro pedagogikoa definitzea.
- c) Ikastetxearen Hezkuntza-Proiektuaren gauzatzea sustatu eta ezagutzera ematea.
- d) Ikastetxea Zuzentzea, bere ordezkaritza ezagutaraztea, eta Ikastetxearen beraren antolaketa zein kudeaketaren ardura gorena bere gain hartzea.
- e) Ikastetxearen kudeaketa ekonomikoa zuzentzea.
- f) Ikasketa berrietarako baimen-eskaerak onartzea, bai eta indarrean dauden baimenak aldatu edota bertan behera uztea ere.
- g) Hezkuntzarako Eskubideari buruzko Lege Organikoak aipatzen dituen kontzertuen harpidetza onartzea, eta beronen aldaketa edota bertan behera uztea sustatzea.
- h) Jarduera eta zerbitzuen eskaintza erabakitzea.
- i) Barne funtzionamendurako Araudia egitea, honi egin dakizkiokeen aldaketak gauzatzea,

onarpenerako aurkeztea eta ezagutzera ematea.

j) Ikastetxeko norbakarreko gobernu eta kudeaketa Organoak, Eskola Kontseiluan hauen ordezkari direnak eta hezkuntza-jarduerako koordinazio Organoak izendatu eta kargutik kentzea, araudi honetan aipatzen denari jarraituz.

k) Ikastetxeko langileak gehitu, kontratatu, izendatu eta kargutik kentzea.

l) Ikasleak onartzeko araudia zehaztu, eta hauen onarpen edota kaleratzeari buruzko erabakiak hartzea, indarrean dauden xedapenei jarraituz.

m) Ikastetxearen funtzionamendu eta kudeaketaz Hezkuntza-Elkartea, Gizartea, Eliza eta Administrazioaren aurrean arduratzea.

n) Ikastetxearen Baimenaren, Antolakuntza Akademikoaren eta Hezkuntza-Kontzertuaren Arau Araupetzailak betetzea.

15. art. - Ordezkaritza.

Titulartasunaren jabe den Erakundeak Ikastetxean ordezkatuko duen pertsona bat izendatuko du.

BIGARREN KAPITULUA: IKASLEAK.

“Ikaslea, gure hezkuntza-jardueraren muina eta subjektu nagusia da: gure Ikastetxeetako jarduera guztiak berau osotasunean hezi dadin daude zuzendurik” (Marianista Ikastetxeen Idearioa, 17. zenbakia).

16. art. - Eskubideak.

Araudi honek ikasleei apirilaren 19ko 160/1994 dekretuan azaltzen diren eskubideak onartzen dizkie. Modu berezian, ondoko eskubideok dituzte ikasleek:

a) Beren nortasunaren garapen erabatekoa bermatuko dien heziketa jasotzea.

b) Beren kontzientzia askatasunean, eta beren erlijio zein moral mailako uste sendoetan errespetatuak izatea.

c) Beren eskola-errendimenduan irizpide publiko eta objektiboen arabera baloratuak izatea.

d) Eskola eta profesional mailako orientabidea jasotzea.

e) Familia, ekonomia zein gizarte-kultur mailako gabeziak izanez gero, osabidezko laguntza posibleak eskuratu ahal izateko informazioa jasotzea; familia-istripu edota zorigaitzen kasuan ere babes sozialeko laguntzak jaso ahal izateko informazioa jasotzea.

f) Berez konfidentzialak izan eta Zentroaren esku leudekeen datu pertsonalen tratamenduan beren intimitatea errespetatua izatea.

g) Araudi honetako 12. artikuluan esaten denari jarraituz elkarteak osatzea.

h) Behin Ikastetxean ikasketak amaituta, Ikastetxearekin berarekin harremanetan segitzea.

i) Eskola Kontseiluan bere ordezkariak hautatzea.

17. art. - Betebeharrak.

Ikasleak, aurreko artikuluan aipatzen den Dekretuak biltzen dituen betebeharrak dauzka; bereziki ondoko betebeharrak ditu ikasleak:

a) Bere ikasle izate horretan errespetuzko jarrera izatea.

b) Beren gaitasunen arabera errendimendu akademikoa lortzen saiatzea.

c) Bere heziketarako, ikasketekin jarraitzeko eta ondoren lanean hasteko nahitaezkoak diren intelektual zein lan mailako ohiturak eskuratzea.

- d) Uneoro irakasle guztiekiko, ikaskideekiko eta Ikastetxeko Hezkuntza-Elkartea osatzen duten guztiekiko errespetuzko jarrera eta jokabidea izatea. Finean, gizabanakoaren eta elkarbizitzaren oinarritzko eskubideen baloreak begi onez ikusi eta errespetatzea.
- e) Irakaskuntza-jardueretara erregulariki zein puntualki joatea, eta Ikastetxeko eremuaren barruan egotea ikaslearenganako ardura eta begiraletza Ikastetxeari berari dagokion momentu oro, aurretiaz bestetarako baimenik dagoen kasuetan salbu.
- f) Ikastetxearen izaera kristauarekiko errespetua izatea.
- g) Araudi honek eta Legeak diotenaren arabera, Zuzendaritzak eta Irakasleek ezarritako disziplina-arauak betetzea.

18. art. - Ordezkariak.

Ikasleek demokratikoki Gelako Ordezkaria hautatu ahal izango dute. Ikastetxeko Zuzendaritzak zehaztuko ditu bere zereginak eta berau hautatzeko prozedura.

19. art. - Onartzea.

Ikasleen onartzea Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeari dagokio. Eskatzaile guztientzako adina plaza egongo ez balira, indarrean dagoen legediak esaten duena egingo da.

HIRUGARREN KAPITULUA: IRAKASLEAK

“Irakasleek, eta bereziki tutoreek, hezkuntza-eragin handia duen lana egiten dute. Horrek guztiak profesionaltasuna, gaitasun-akademikoa eta bizimodu eredugarria izatea exijitzen du” (Marianista Ikastetxeen Idearioa, 18. zenbakia).

20. art. - Eskubideak.

Indarrean dagoen legediak esaten duena alderatuz, irakasleek ondoko eskubideok dituzte:

- a) Beren hezkuntza-lana modu askean gauzatzea Idearioarekiko eta Araudi honekiko harmonian, beren kontratuan zehazten diren baldintzekin bat etorritik, Zuzendaritzak esleitutako lanpostuan.
- b) Ikastetxearen helburu eta aukerak kontutan hartuta, beren hobekuntza profesionalaren eta hezkuntza-lanaren kalitatearen onerako izango diren ikastaro, bilera eta abarretarako erraztasunak ematea.
- c) Ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuaren eta Etapako Proiektu Curricularraren gauzatze eta eguneratzean parte hartzea.
- d) Beren metodologia Etapako Proiektu Curricularraren arabera eta dagokion Mintegiarekin modu koordinatuan garatzea.
- e) Bere ebaluatze lana modu askean egitea Etapako Proiektu Curricularrean aipatzen diren irizpideekin bat etorritik.
- f) Ikastetxeko bitarteko materialak eta instalazioak, Ikastetxearen beraren hezkuntza-helburuak eskuratu ahal izateko erabiltzea, beti ere beren erabilera arautzen duten arauak errespetatuz.
- g) Araudi honetako 12. artikuluan esaten denari jarraituz elkarteak osatzea.
- h) Beren lana duintasunez egitea ahalbideratuko dien materiala izatea.
- i) Eskola Kontseiluan beren ordezkariak hautatzea.

21. art. - Betebeharrak.

Irakaslearen oinarrizko betebeharrak dira Ideario eta Araudi honekiko errespetua, hezitzaile bezala berez dagozkionak eta Ikastetxearen helburu nagusiak lortzea. Bereziki ondoko betebeharrak dituzte irakasleek:

- a) Beren lana beren kontratu edota izendapenetan zehazten diren baldintzen arabera egitea, eta egutegi zein ordutegi eskolarra goitik behera betetzea.
- b) Ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuan zehazten diren helburuak lortzen laguntzea, eta beren lanean Etapako Proiektu Curricularren aipatzen diren, eta Zuzendaritza Organoetatik berei zuzenduta datozkeen gidalerroei segitzea.
- c) Dagokien kurtsoko Irakasle Taldearen eta Mintegiaren baitan, irakasten duten eremu edota ikasgaiko programazio zehatzean parte hartzea, eta dagozkien gela-programazioak egitea.
- d) Hezkuntza-lanaren arlo desberdinen ebaluazioan parte hartzea; bereziki beren ikasleen eskola-errendimendua modu zuzenean ebaluatzea irizpide publiko eta objektiboak erabiliz, eta Proiektu Curricularretako gidalerroekin bat etorriz.
- e) Beren eremu edo ikasgaiari dagozkion lan eta ikasketa-teknika zehatzetan ikasleak orientatzea, beroni dagozkion praktika edota mintegiak zuzentzea, eta ikasleekin berekin egindako frogak aztertu eta komentatzea.
- f) Beren zereginen baitako eremuan ordena eta disziplina izan daitezen laguntzea.
- g) Profesionalki hobetzen saiatzea.
- h) Profesional mailako sekretua gordetzea.
- i) Ikasleen gurasoekin harreman egokia izatea.
- j) Beren hezkuntza-lanean, politika edo sindikal mailako propaganda partidista litzatekeen ezein adierazpen egiteari uko egitea.
- k) Deituak diren bilera desberdinetara joatea.
- l) Ikastetxeko ikasleei eskola partikularrak ezin ematea, zuzendaritza baimendutako kasuetan salbu.

22. art. - Onartzea.

1. Irakasleen hutsuneen betetzea eta beronen hautapenerako irizpideen ezartzea Titulartasunaren jabe den Erakundeari dagokio. Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeak Eskola Kontseiluari emango dio hartzen diren erabakien berri.

2. Kontzertaturiko Etapetako hutsuneak betetzeko, aurreko atalean aipatutakoa alderatuz, indarrean dagoen legediak esaten duena beteko da, eta I. Eranskinean zehazten den prozedurari jarraituko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA: GURASOAK.

“Gurasoak dira beren seme-alaben heziketaren ardura nagusia eta lehena dutenak. Berei dagokie, beraz, hauentzat nahi duten heziketan mota hautatzeko lehentasuneko eskubidea” (Marianista Ikastetxeen Idearioa, 19. zenbakia).

23. art. - Ikasleen gurasoak.

Gurasoek, beren seme-alaben heziketaren ardura nagusia eta lehena dutenek, Ikastetxeko Hezkuntza-Elkartearen funtsezko atala osatzen dute. Askatasun osoz berau hautatu izanak, beronen Idearioaren eta funtzionamendu-arauen onarpena suposatzen du.

24. art. - Eskubideak.

Guraso edo legezko tutoreek ondoko eskubideok dituzte:

- a) Ikastetxean, Idearioan eta Ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuan definitutako hezkuntza mota eskaintzea.
- b) Dagozkien esparruetan, Ikastetxean beren seme-alaben hezkuntza-prozesuarekin zerikusia duten kontuetan parte hartzea.
- c) Prozesu horri buruzko informazio egokia eskuratzea.
- d) Ikastetxeko irakasleen aldetik, horretarako ezarritako ordutegietan errezibituak izatea.
- e) Araudi honetako 12. artikuluan esaten denari jarraituz elkarteak osatzea.
- i) Eskola Kontseiluan beren ordezkariak hautatzea.

25. art. - Betebeharrak.

Gurasoek ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Familia eta Ikastetxearen arteko elkarlana egokia izan dadin ahalegintzea, hezkuntza-lanean ahalik eta emaitzarik onenak eskura daitezen. Horretarako:

- Irakasle, Tutore, Etapako Zuzendari Tekniko, Etapako Zuzendari edota Ikastetxeko Zuzendariak beren seme-alaben hezkuntzarekin zerikusia duten gaiak aztertzeke deitutako elkarriketa eta bileretara joango dira.

- Ikastetxetik kanpo, Ikastetxearen beraren hezkuntza-lana eraginkorragoa egingo duten egoerak bultzatuko dituzte.

- Hezitzaileei, eskola-ingurunean beren seme-alaben heziketa eta integrazioarako garrantzitsuak izan daitezkeen egoera eta alderdi pertsonalei buruzko informazioa emango diete, bai eta beren hezkuntza-prozesuan eragina izan dezaketen familia-egoerei buruzko informazioa ere.

- b) Ikastetxean lan egin edota beronetan laguntzaile direnen gaitasun tekniko-profesionalen egikaritza errespetatzea.
- c) Beren seme-alaben asistentzia eza edota puntualitate eza justifikatzea.
- d) Oro har, Ikastetxearekin duten harremanetik ondorioztatzen diren betebeharrak betetzea.

26. art. - Formakuntza.

Ikastetxeak, beren seme-alaben hezitzaile nagusi diren heinean, beren formakuntzarako laguntza eskainiko die gurasoei.

27. art. - Gurasoen Batzordeak.

Gurasoen Elkarteko kideek Batzordeak osatu ahal izango dituzte. Zuzendaritza Batzordea da Gurasoen Elkartearen ordezkaria, bai eta Ikastetxeko Zuzendaritzaren aurrean solaskide ofiziala ere.

LANGILEAK.

“ Administrazio eta zerbitzuetako langileek modu solidarioan laguntzen dute gure Ikastetxeen jardunean, eta beren buruak konprometitu egiten dituzte hauetan gauzatzen den hezkuntzalanearan ” (Marianista Ikastetxeen Idearioa, 20. zenbakia).

28. art. - Administrazio eta Zerbitzuetako langileak.

Ikastetxearekin beren lan-kontratuaren arabera dituzten eskubide eta betebeharren bidez duten lotura tarteko, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak Ikastetxeko bertako Hezkuntza-Elkarteko kide dira goitik behera. Beren egitekoen banaketa Ikastetxeko Zuzendariari dagokio.

29. art. - Eskubideak.

Administrazio eta Zerbitzuetako langileek, indarrean dagoen legediak onartzen dizkien eskubideak dituzte, eta bereziki ondokook:

- a) Hezkuntza-Elkarteko kide gisara integratua izatea.
- b) Ikastetxearen helburuei eta antolaketari buruzko informazioa jasotzea, eta berei dagokienean, parte hartzea.
- c) Ikastetxearen helburu eta aukerak kontutan hartuta, beren hobekuntza profesionalaren eta lanaren kalitatearen onerako izango diren ikastaro, bilera eta abarretarako erraztasunak ematea.
- d) Araudi honetako 12. artikuluan esaten denari jarraituz elkarrekin osatzea.
- e) Eskola Kontseiluan beren ordezkariak hautatzea.
- f) Beren lana duintasunez egitea ahalbideratuko dien materiala izatea.

30. art. - Betebeharrak.

Administrazio eta Zerbitzuetako langileek ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Ikastetxeko Idearioa eta funtzionamendu arauak errespetatzea.
- b) Beren lana beren kontratu edota izendapenetan zehazten diren baldintzen arabera egitea.
- c) Profesionalki hobetzen saiatzea.
- d) Ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuan zehaztutako helburuak lortzen lagundu eta beren lanetan Zuzendaritza Organoetatik berei zuzenduta datozkeen gidalerroei segitzea.
- e) Profesional mailako sekretua gordetzea.
- f) Ikastetxeko beren lanean, politika edo sindikal mailako propaganda partidista litzatekeen ezein adierazpen egiteari uko egitea.
- g) Deituak diren bilera desberdinetara joatea.

31. art. - Onartzea.

Administrazio eta Zerbitzuetako langileak Titulartasunaren jabe den Erakundeak izendatzen ditu, bai eta kargutik kendu ere.

SEIGARREN KAPITULUA: BESTE KIDE BATZUK.

32. art. - Beste kide batzuk.

Hezkuntza-Elkarteko kide dira era berean Ikastetxeko Zuzendariaren baimen egokia medio, Zentroko zuzendaritzak zehazten dituen programekin bat etorritik Ikastetxeko bertako hezkuntza-jardueran parte hartzen duten gainerako pertsonak ere (laguntzaileak, entrenatzaileak, aisialdiko monitoreak, ikasle-ohiak, bolondresak eta beste).

33. art. - Eskubideak.

Hezkuntza-Elkarteko kide hauek ondoko eskubideok dituzte:

- a) Ikastetxeko eremuan beren laguntzaile edo bolondres izatea publiko egitea.
- b) Beren lanak, berei aplikatu dakiekeen legediak esaten duen moduan egitea.
- c) Araudi honetako 12. artikuluan esaten denari jarraituz elkarrekin osatzea.

34. art. - Betebeharrak.

Hezkuntza-Elkarteko kide hauek ondoko betebeharrak dituzte:

- a) Ikastetxeko Idearioa eta funtzionamendu arauak errespetatzea.
- b) Beren lana, Araudi honetako 32. artikuluan aipatzen dituen programetan zehazten den moduan garatzea.
- c) Eskolaren jardueraren garapen normalean oztoporik ez jartzea.

II. TITULUA. GOBERNU ETA KUDEAKETA-ORGANOAK

35. art. - Gobernu eta Kudeaketa-Organok.

1. Ikastetxeko Gobernu eta Kudeaketa-Organok norbakarrekoak eta bilduak dira.
2. Ondokook dira norbakarreko Gobernu eta Kudeaketa-Organok: Ikastetxeko Zuzendaria, Etapako Zuzendariak, Etapako Zuzendari Teknikoak, Pastoraltzako Ikastetxeko Arduraduna, Etapako Pastoraltzako Arduradunak, Administrazio eta Idazkaritzako Arduraduna eta Zerbitzuetako Arduraduna.
3. Ondokook dira Gobernu eta Kudeaketa-Organok bilduak: Zuzendaritza Taldea, Eskola Kontseilua, Irakasleen Klaustroa eta Pastoral Kontseilua.
4. Gobernu eta Kudeaketa-Organok, Ikastetxeko Ideario zein Hezkuntza-Proiektuan zehazten diren helburuak indarrean dagoen legediak esaten duen moduan sustatuz egiten dute lan.
5. Titulartasunaren jabe den Erakundeak beste Organo edo bitarteko egokiak jar ditzake Ikastetxeko jarduerak hobeto kudeatu, eta dagozkien esparruetan Hezkuntza-Elkarteko kideen partaidetza areagotzeko.

LEHEN KAPITULUA: NORBAKARREKO ORGANOAK.

Lehen atala: Ikastetxeko Zuzendaria.

36. art. - Eskumenak.

Ondokook dira Ikastetxeko Zuzendariaren eskumenak:

- a) Ikastetxeko Idearioa eta Hezkuntza-Proiektua behar bezala gauza daitezten arduratzea.
- b) Zuzendaritza Taldeko eta Eskola Kontseiluko bilerak deitu eta zuzentzea.
- c) Ikastetxeko Klaustro Orokorra deitu eta zuzentzea.
- d) Bertaratzen denean, Ikastetxeko bilerak zuzentzea, gainerako norbakarreko Organoei onartutako ahalmenak gutxietsi gabe.
- e) Arau-hauste larriak egiten dituzten ikasleen disziplina alorrean inizatiba izatea.
- f) Araudi honetan aipatzen diren gainerakoak, edota Titulartasunaren jabe den Erakundeak esleitzen dizkionak.

37. art. - Izendatzea eta kargutik kentzea.

Ikastetxeko Zuzendaria Titulartasunaren jabe den Erakundeak izendatzen du, bai eta kargutik kendu ere.

Bigarren atala: Etapako Zuzendariak.

38. art. - Eskumenak

Ondokook dira Etapako Zuzendariaren eskumenak dagokion esparruan:

- a) Dagokion Etapako hezkuntza-jarduerak -irakaskuntzakoak eta akademikoak ez direnak-

zuzendu eta koordinatzea.

- b) Hezkuntzari dagozkion kontuetan, irakasle langileen burutza betetzea.
- c) Bere Etapako ebaluaketa bilerak, gainerako ekintza akademikoak eta Etapa horretako bertako Klaustro bilerak deitu eta zuzentzea.
- d) Ziurtagiri eta dokumentu akademikoak bisatzea.
- e) Bere ahalmenen esparruan, berari dagozkion eta Organo bilduek onartzen dituzten akordioak gauzatzea.
- f) Ikastetxeko Zuzendariari Mintegi Koordinatzaileak eta Tutoreak proposatzea izenda ditzan.
- g) Araudi honetan zehazten den moduan elkarbizitza sustatzea eta sor daitezkeen gorabeherak zuzentzea.
- h) Hezkuntzaren alorrean Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeak esleitzen dizkion gainerakoak.

39. art. - Esparrua.

Aurreko artikulua ondoko Etapei egiten die erreferentzia:

- a) Haur Hezkuntza.
- b) Lehen Hezkuntza.
- c) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza.
- d) Batxilergoa.

40. art.- Etapako Zuzendarien izendatzea, kargutik kentzea eta funtzio gabetzea.

1. Etapako Zuzendariak, Titulartasunaren jabe den Erakundeak izendatzen ditu, bai eta kargutik kendu ere.
2. Kontzertatutako Etapetako Zuzendariak izendatzeko, kargutik kentzeko eta funtzio gabetzeko prozedurak indarrean dagoen legediak aipatzen dituenak dira (L.O.D.E., 59. art; L.O.P.E.G., Azken Xedapen Lehena, 6).
3. Ikastetxeko Zuzendariak Etapa bat edo gehiagotako Zuzendaritza har dezake beregain.

Hirugarren atala: Etapako Zuzendari Teknikoa.

41. art. - Zuzendari Teknikoak.

Aurreko artikuluko 3. atalean aipatzen diren kasuetan, eta zuzendaritza-lana erraztu asmoz, Etapako Zuzendari Tekniko bat edo gehiago izenda daitezke. Hauek, praktikan, dagokien Etapako Zuzendariaren funtzioak berenganatzen dituzte, Etaparen beraren ibilbide ohikoari dagokionean.

42. art. - Funtzioak.

- a) Dagokion Etapako hezkuntza-jarduerak eta jarduera akademikoak eta akademikoak ez direnak zuzendu eta koordinatzea.
- b) Hezkuntzari dagozkion kontuetan, irakasle langileen burutza betetzea.
- c) Bere Etapako Saileko Irakasleen Klaustro bilerak deitu eta zuzentzea.
- d) Bere Etapako Mintegi Koordinatzaileak eta Tutoreak izendatu aurretik Ikastetxeko Zuzendariak entzutea.
- e) Araudi honetan zehazten den moduan elkarbizitza sustatzea eta sor daitezkeen gorabeherak zuzentzea.
- f) Hezkuntzaren alorrean Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeak esleitzen

dizkion gainerakoak.

43. art. - Esparrua, izendatzea eta kargutik kentzea.

1. Titulartasunaren jabe den Erakundeari dagokio, Ikastetxeko Zuzendariarekin adostu eta gero, Zuzendari Teknikoa zein Etapak izango duten erabakitzea.

2. Etapako Zuzendari Teknikoak, Titulartasunaren jabe den Erakundeak izendatzen ditu, bai eta kargutik kendu ere, Ikastetxeko Zuzendariak proposatuta.

Laugarren atala: Ikastetxeko Pastoral Arduraduna eta Etapako Pastoral Arduradunak.

44. art. - Ikastetxeko Pastoral Arduraduna.

Ondokook dira Ikastetxeko Pastoral Arduradunaren eskumenak:

- a) Idearioarekin eta Hezkuntza-Proiektuarekin bat etorritz, mota guztietako jardueren bidez Ikastetxearen egintza ebanjelizatzailea sustatu eta bultzatzea.
- b) Ikastetxe guztiko hezkuntza-egintza bateratuko pastoraltzako jardueren programazioa eta garapena lagundu eta koordinatzea.
- c) Pastoral Kontseiluko bilerak deitu eta zuzentzea.
- d) Ikastetxeko Pastoral Proiektuak eta Urteko Planak egitea bultzatu, bai eta hauen jarraipen zein ebaluazioa ere.
- e) Ikastetxeko hezkuntza-egintzaren programazio eta gauzatzean, zein Tutoreen orientabide lanean laguntzea.
- g) Ikastetxearen egintza pastorala Elizbarrutiarekin koordinatzea.
- h) Ikastetxeko Zuzendariari Etapa desberdinetako Pastoraltzako Arduradunen izendatzea proposatzea.

45. art. - Izendatzea eta kargutik kentzea.

Ikastetxeko Pastoral Arduraduna, Ikastetxearen beraren Titulartasunaren jabe den Erakundeak, Ikastetxeko Zuzendariarekin hitz eginda, izendatu eta kentzen du kargutik, eta bere funtzioak, beronekiko dependentzian betetzen ditu.

46. art. - Etapako Pastoral Arduraduna.

Etapako Pastoral Arduradunak bere Etapan Ikastetxeko Pastoral Arduradunak dituen funtzio analogoak ditu.

Etapako Pastoral Arduraduna, Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeak, Ikastetxeko Zuzendariarekin eta Ikastetxeko Pastoral Arduradunarekin hitz eginda, izendatu eta kentzen du kargutik.

Bosgarren atala: Administrazio-Idazkaritza eta Zerbitzuetako Arduradunak.

47. art. Administrazio-Idazkaritzako Arduradunaren Eskumenak.

Ondokook dira Administrazio-Idazkaritzako Arduradunaren Eskumenak:

- a) Ekitaldi Ekonomiko bakoitzari dagokion Memoria Ekonomikoa, Urteko Kontuen Ematea

eta Ikastetxeko Aurrekontua gauzatzea.

b) Egin beharreko eskubide ekonomikoen diru-bilketa eta kitapena ikuskatzea; Zentroak dituen betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioak behar bezala gauzatzen direla ikuskatzea.

c) Zentroari derrigorrezko aseguru-polizen ordainketen eta borondatez izenpetu nahiko lituzkeenen berri ematea.

d) Ikastetxeko Diruzaintzaren kontrola beregain hartzea, diru sarrerak eta ordainketak kontrolatuz.

e) Zuzendariari, bere Taldeari eta Aldi Baterako Kontuen Probintzial-Laguntzaileari Ikastetxearen ibilbide ekonomikoaren berri ematea, eta aldiro Aurrekontuaren aplikazioari buruzko txostena aurkeztea.

f) Administrazio-Idazkaritzako langileak eta kopiagintza, administrazioari laguntza, gaixorik dauden haurrei arreta eta beste hainbat lan esleitzen dizkien harrerako langileak zuzentzea.

g) Ikastetxeko kontabilitatea eta inbentarioa eguneratuta eramatea.

h) Agiri-kudeaketaz arduratzea: ebaluaketa-akta eta espedienteen bilketa, mantenua eta zaintza. Titulu eta Ziurtagiriak egiaztatzea.

i) Ikastetxearengan eragina duten akademiko eta administratibo alorreko xedapen oro gauzatzen denaren diligenza egitea.

j) Familiei eskolaratze eta laguntza-eskaera prozesuei buruzko informazioa eman eta dokumentazioa tramitatzea.

48. art. - Izendatzea eta kargutik kentzea.

Administrazio-Idazkaritzako Arduraduna, Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeak, Ikastetxeko Zuzendariarekin hitz eginda, izendatu eta kentzen du kargutik.

49. art. - Zerbitzuetako arduraduna. Eskumenak.

Ondokook dira Zerbitzuetako arduradunaren eskumenak:

a) Material suntsikorren erosketa eta bilketa-zerbitzuak, eta oro har eraikin, lan, instalakuntza eta Ikastetxeko zerbitzu materialak antolatu, administratu eta kudeatzea, beren emaitza ekonomikoa kontrolatuz.

b) Gremio desberdinak kontratatu eta kontrolatzea. Aurrekontu-azterketak, eta Administrazio Arduradunarekin adostuta ordainketa-baldintzak aurkeztea.

c) Eskola-aseguruen eskaintza desberdinak aztertu, eta beren kalitate eta zerbitzua kontrolatzea.

d) Zerbitzu materialetako langileak koordinatzea, eta zerbitzu horien jarraipen egokia egitea -mantenua, garbiketa, sukaldea, jangela, kopiagintza, liburu eta material salmenta-, Ikastetxearen funtzionamendu egokia ziurtaturik izateko moduan.

e) Higiene eta segurtasunari erreparatzen dieten xedapenak egoki betetzen direla ikuskatzea.

f) Eskolako garraio-zerbitzua kontrolatzea.

g) Zuzendaritza Taldeari aurkeztu eta ondoren Hezkuntzako Batzorde Probintzialak onar ditzan epe motz eta ertainerako inbertsio-azterketak prestatzea.

50. art. - Izendatzea eta kargutik kentzea.

Zerbitzuetako Arduraduna, Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeak, Ikastetxeko Zuzendariarekin hitz eginda, izendatu eta kentzen du kargutik.

BIGARREN KAPITULUA: ORGANO BILDUAK.

Lehen atala: Zuzendaritza Taldea.

51. art. - Eraketa.

1. Zuzendaritza taldea ondokook osatzen dute:

- a) Eskolako Zuzendariak; beronek deitu eta zuzentzen du.
 - b) Etapako Zuzendariak.
 - c) Etapako Zuzendari Teknikoak.
 - d) Ikastetxeko Pastoral Arduradunak.
 - e) Aurrekoren bat izan ezean, Titulartasunaren jabe den Erakundearen Ordezkaririk.
2. Zuzendariak Administrariari edota beste pertsona batzuei ere helarazi diezaieke Zuzendaritza Taldearen bileratara joateko deia; nolana ere, hauek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez bozkatzekoa.

52. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Zuzendaritza Taldearen eskumenak:

- a) Ikastetxeko Zuzendariari bere lanean aholkuak ematea.
- b) Ikastetxearen funtzionamenduaren baitako alderdi desberdinen garapena koordinatzea Ikastetxearen beraren helburuak lortzearen, beti ere dagokien Organo Bilduen berariazko eskumenak kontutan hartuta.
- c) Ikastetxearen Urteko Programazio Orokorra egin, beronen gauzatzea kontrolatu eta ebaluatzea.
- d) Eskola Kontseiluan landu beharreko gaiak prestatzea.
- e) Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren egitea zuzendu eta beronen gauzatzearen jarraipena burutzea.
- f) Etapa desberdinetako Proiektu Curricularren egitea koordinatzea.

53. art.- Bilerak.

Zuzendaritza taldea, normalean, astean behin biltzen da.

Bigarren atala: Eskola Kontseilua

54. art.- Hezkuntza-Elkartearen partaidetza.

Ikastetxearen kudeaketan Hezkuntza-Elkartearen partaidetza sustatu eta ziurtatzeko helburuarekin, eta indarrean dagoen legediak esaten duen moduan, Eskola Kontseilua dago Ikastetxean bertan.

55. art.- Eskola Kontseilua.

Eskola Kontseilua, Hezkuntza-Elkartearen partaidetza Organo gorena da.

56. art.- Eraketa eta eskumenak.

Eskola Kontseiluaren eraketa eta eskumenak, legeak esaten dituenak dira (L.O.D.E., 56, 57, eta 58. art.; L.O.P.E.G. Lehen Xedapen Erantsia, 4, 5).

57. art.- Hautaketa eta hutsuneak.

Eskola Kontseiluko kideen hautaketa, eta ordezkari horien hutsuneen behin behineko betetzea, indarrean dagoen legeak esaten duen moduan egiten da, Araudi honetako II. Eranskinean esaten den prozedurari jarraituz.

58. art.- Funtzionamendu araudia.

Eskola Kontseiluak ondoko araudiaren arabera funtzionatzen du:

1. Kontseilua Ikastetxeko Zuzendariak zuzentzen du. Bilerak Ikastetxeko Zuzendariak deitzen ditu. Deialdia, gutxienez astebeteko aurrerapenaz egingo da, eta Eguneko Gai Zerrenda ere azalduko da bertan. Premiazko kasuetan, deialdi hori hogeita lau orduko aurrerapenaz egin daiteke.
2. Kontseilua normalean urtean hirutan bilduko da, ikasturtearen hiruhileko bakoitzarekin bat eginaz. Modu ezohikoan Presidenteak deituta bilduko da, berak eskatuta, Titulartasunaren jabe den Erakundeak eskatuta, edota, gutxienez Kontseilua osatzen duten kideen erdiek eskatuta.
3. Kontseilua osatutzat emango da, bilerara kideen erdiak baino gehiago joaten direnean.
4. Kontseiluaren bileretara, Presidenteak deituta, gainerako Norbakarreko Organoak, eta beren txosten edota aholkularitza egoki ikusten duen pertsonak joan ahal izango dira; hauek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez bozkatzekoa.
5. Kontseiluak, beharrezkoa den dokumentazioaren laguntzaz, Eguneko Gai Zerrendako gai desberdinak aztertzen ditu, eta elkarrizketa bidez, erabakiak adostasunez hartzen saiatzen da. Egoki ikusten denean, erabakiak bertaratzen direnen gehiengo absolutuz hartzen dira, gai zehatz batzuetan bestelako gehiengoak exijitzen direnean izan ezik. Berdinketa izanez gero, Presidentearen botoak erabakiko luke auzia.
6. Kide guztiek daukate boto partikularra eman eta beronen berri aktetan jasotzeko eskubidea.
7. Boto emateak sekretuak izango dira pertsonari erreferentzia egiten dietenean, edota bertaratzen direnen heren batek hala eskatzen duenean.

8. Bertarutzen diren guztiek isilik eta diskrezioz gordeko dituzte aztertutako gaien buruz esanak.

9. Kontseiluko Idazkaria, bertako Presidenteak hautatzen du. Idazkari honek berak bilera guztien akta jasoko du; beti izango da hurrengo bileran akta horretan idatzitakoa irakurri eta zuzenketak egiteko aukera. Behin onartuta, Idazkariak sinatu eta egiaztatu egingo du, Presidentearen oniritziarekin.

10. Eskola Kontseiluko kideak bilerara ez joatea Presidentearen aurrean justifikatu beharko da.

11. Kontseilua eta Presidentearen adostasunez, osatzean bertan erabakitzen den eraketa, eskumen, iraupen eta funtzionamendu araudia duten Batzordeak osa daitezke.

Hirugarren atala: Irakasleen Klaustroa.

59. art.- Irakasleen Klaustroa.

Irakasleen Klaustroa, Ikastetxeko irakaslegoaren berezko partaidetza Organoa da. Berau, Ikastetxeko hezkuntza curricularretako irakasle guztiek eta orientatzaileek osatzen dute.

60. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Irakasleen Klaustroaren eskumenak:

- a) Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuaren egitean, Urteko Programazio Nagusiaren egitean eta Ikastetxearen ebaluazioan parte hartzea.
- b) Ikastetxearen lerro pedagogikoaren aplikazio eta ebaluazioan parte hartzea.
- c) Etapa desberdinetako Proiektu Curricularretako programazioen koordinazio lanetan parte hartzea.
- d) Hezkuntza eta didaktika alorretan hobekuntza lortzeko ekimenak proposatzea.
- e) Bere kide guztien formakuntza eta berritze pedagogikorako bide izatea.
- f) Eguneroko jardunean irakasle guztiek hezkuntza-irizpide bateratuak izan ditzaten lortzen saiatzea, eta elkarren arteko harremana eta ezagupidea bultzatzea.
- g) Ikastetxeari orokorrean dagozkion gaien buruzko informazioa jasotzea.
- h) Indarrean dagoen legediak bere gain utzitako beste edozein.

61. art.- Atalak.

1. Ikastetxeko Zuzendaritza Taldeak Klaustro-Atalak eratu ditzake Etapa bakoitzeko gai zehatzak lantzeko.
2. Klaustro-Atal horietan, dagokion Etapako irakasle eta orientatzaile guztiek hartzen dute parte.

62. art.- Atalen eskumenak.

Hauek dira Klaustro-Atalek beren esparruan dituzten eskumenak:

- a) Zuzendaritza Taldeak ezartzen dituen irizpideei jarraiki, Etapako Proiektu Curricularraren egite eta ebaluazioan parte hartzea.
- b) Ezagutza esparru desberdinetako programazioak koordinatzea.
- c) Ikasleen ebaluazio eta errekupeziarako irizpideak ezarri eta koordinatzea.
- d) Oro har, Klaustro Orokorrak dituen eskumenak bere Etapari dagozkionetan.

63. art.- Funtzionamendu araudia.

Klaustroaren edota berau osatzen duten Atalen funtzionamenduak ondoko arauok betetzen ditu:

1. Bilerak Ikastetxeko Zuzendariak deitu eta zuzentzen ditu. Honek Klaustro-Atalen baten presidentzia dagokion Etapako Zuzendariaren edota Zuzendari Teknikoaren esku utz dezake.
2. Deialdia garaiz egingo da, eta Eguneko Gai Zerrenda ere azalduko da bertan.
3. Derrigorrezkoa da irakasleak bileretara joatea; ez joatea Presidentearen aurrean justifikatu beharko da.
4. Klaustroaren bileretara, Presidenteak deituta, beren txosten edota aholkularitza egoki ikusten duen pertsonak joan ahal izango dute.
5. Klaustroa, landu beharreko gaiak konpontzeko erabakiak adostasunez hartzen saiatzen da. Egoki ikusten denean, erabakiak bertaratzen direnen gehiengo absolutuz hartzen dira. Berdinketa izanez gero, Presidentearen botoak erabakiko luke auzia.
6. Kide guztiek daukate boto partikularra eman eta beronen berri aktetan jasotzeko eskubidea.
7. Boto emateak sekretuak izango dira pertsonen erreferentzia egiten dietenean, edota bertaratzen direnen heren batek hala eskatzen duenean.
8. Bertaratzen diren guztiek isilik eta diskrezioz gordeko dituzte aztertutako gaien buruz esanak.
9. Klaustroko Idazkaria, bertako Presidenteak hautatzen du. Idazkari honek berak bilera guztien akta jasoko du; beti izango da hurrengo bileran akta horretan idatzitakoa irakurri eta

zuzenketak egiteko aukera. Behin onartuta, Idazkariak sinatu eta egiaztatu egingo du, Presidentearen oniritziarekin.

Laugarren Atala: Pastoral Kontseilua.

64. art.- Pastoral Kontseilua.

Ikastetxean egiten diren eskola zein eskolaz kanpoko jarduera guztietako ekintza ebanjelizatzaile eta pastoralak sustatu eta koordinatzen duen pertsona taldea da. Ikastetxeko Pastoral Arduradunak koordinatu eta zuzentzen du.

65. art.- Eraketa.

Pastoral Kontseilua ondoko kideok osatzen dute:

- a) Ikastetxeko Pastoral Arduradunak.
- b) Etapa desberdinetako Pastoral Arduradunak.
- c) Jarduera edota arlo pastoral bakoitzeko Talde Arduraduneko kide batek.
- d) Etapa bakoitzeko Erlijio irakasle batek.
- e) Gurasoen Elkarteko Zuzendaritza Batzordeak hautatutako aita edota ama batek.
- f) Ikastetxeko goi mailako ikasle batek.

66. art.- Izendatzea.

Ikasturte bakoitzeko Zuzendaritza taldeak izendatzen du, aurrez dagokien taldeekin kontsulta egin ostean.

67. art.- Deialdia.

Ikastetxeko Pastoral Arduradunak Kontseilua gutxienez hiru hilean behin deitzen du.

68. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Pastoral Kontseiluaren eskumenak:

- a) Ikastetxeko pastoral jarduera desberdinen arteko informazio eta koordinazio bide izatea.
- b) Ikastetxeko Pastoral Proiektua eta Urteko Planak egin, eta Zuzendaritza Taldeari aurkeztea, honek onar ditzan.
- c) Pastoral Proiektua eta Urteko Planen funtzionamendua eta emaitzak ebaluatzea, ebaluaketa hauek Zuzendaritza Taldeari aurkeztuko zaizkion Urteko Memoretan islatuz.
- d) Irakaskuntza erlijiosoari dagokionean, Erlijio Mintegiarekin batera aritzea.
- e) Ikastetxeko pastoral ekintzak Hezkuntza-Elkartea osatzen dute familien artera luzatzea.

III. TITULUA. HEZKUNTZA-KOORDINAZIORAKO ORGANOAK

69. art.- Hezkuntza-Koordinaziorako Organoak.

- 1- Hezkuntza-Koordinaziorako Organoak norbakarrekoak eta bilduak dira.
2. Ondokook dira Hezkuntza-Koordinaziorako Norbakarreko Organoak: Orientabide Koordinatzailea, Mintegiko Koordinatzailea eta Tutorea.
3. Ondokook dira Hezkuntza-Koordinaziorako Organo Bilduak: Irakasle Taldeak, Orientabide Mintegia eta beste Mintegiak.
4. Ikastetxeko Zuzendaritzak egokiagoak diren beste bitartekoak ezar ditzake Ikastetxeko hezkuntza-lana hobeto burutu dadin.

LEHEN KAPITULUA: NORBAKARREKO ORGANOAK.

Lehen Atala: Orientabide Koordinatzailea.

70. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Orientabide Koordinatzailearen eskumenak:

- a) Orientabideari dagokion arloan, Irakasleei, Gobernu eta Kudeaketa Organoei eta Ikastetxeko antolaketa-egiturei aholkuak ematea.
- b) Orientabide funtzioaren alderdi nagusiak koordinatzea.
- c) Ikastetxearen hezkuntza-jardueraren baitako orientabide ekintzen garapena sustatu, eta planifikazioa koordinatu zein beroni buruzko aholkuak ematea.
- d) Ikasle taldeekin orientabide programak garatzea.
- e) Orientabide Mintegiko bilerak deitu eta zuzentzea.
- f) Tutoretza Planaren egituratzean laguntzea.

71. art.- Izendatzea eta kargutik kentzea.

Orientabide Koordinatzailea Ikastetxeko Zuzendariak izendatu eta kentzen du kargutik.

Bigarren Atala: Mintegi Koordinatzailea.

72. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Mintegi Koordinatzailearen eskumenak:

- a) Mintegiko bilerak deitu eta moderatzea.
- b) Ikasturte bakoitzeko arloko programazioen egitean Mintegiko lana koordinatzea, etapa eta zikloetan zehar edukien banaketari, gutxieneko helburuen zein ebaluaketa irizpideen proposamenari, eta material curricularren hautaketari dagokionez koherentzia mantentzen saiatuz.
- c) Ikastetxearen Urteko Aurrekontua egin ahal izateko Mintegiaren beharrei buruzko derrigorrezko txostenak egitea.
- d) Akademiko arloan Zuzendaritzak proposatutako lana sustatu eta koordinatzea.

73. art.- Izendatzea eta kargutik kentzea.

Orientabide Koordinatzailea Ikastetxeko Zuzendariak izendatu eta kentzen du kargutik Mintegiko kideen artetik, Etapako Zuzendariak proposatuta eta Zuzendari Teknikoen zein Mintegiko kideen iritzia entzunda.

Hirugarren atala: Tutorea.

74. art.- Tutorea.

Tutorea, ikasturte edota ziklo batean zehar dagokion talde edo klasearen, eta berau osatzen duten ikasle bakoitzaren Ikastetxeko hezkuntza-prozesuaren ardura zuzenena duen irakaslea da.

75. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Tutorearen eskumenak:

- a) Gurasoekin eta Ikastetxeko gainerako hezitzaileekin batera bere taldeko ikasleei heltze integralaren prozesuan laguntzea. Horretarako, Idearioko zein Hezkuntza-Proiektuko printzipio eta irizpideetan oinarrituko da.
- b) Dagokion taldeko ikasleen ebaluaketa bilerak zuzendu eta moderatzea, bai eta bere ikasleen noten zein dagokien buletinaren erregistroa eramatea.
- c) Uneoro ikaslearen formakuntzaz arduratzea, batez ere eskola orduetan tutoretzari eskainitako orduetan; zehazki bakoitzarekin bere eskola-errendimenduaz, zailtasunen

arrazoiez eta irtenbide posibleez hitz egitea.

d) Taldearen ibilbidea, eta ikasle bakoitzaren ezaugarri zein berezitasunak ezagutzea.

e) Taldeko irakasleen hezkuntza-lana eta ikasleei buruzko informazioa koordinatzea.

f) Familiak normaltasunez hartzea eta ikasleei buruzko ikas-prozesuari buruzko informazioa ematea. Berei lagundu eta orientatzea.

g) Gurasoekin bilerak prestatzea, Zuzendaritzaren irizpideei jarraituz.

h) Bere gelaren esparruari dagokionez Ikastetxeko jarduera formatibo guztiak, eta hezkuntza zein pastoral arloko kanpainak motibatu eta sustatzea.

76. art.- Izendatzea eta kargutik kentzea.

Tutorea, dagokion ikasle taldearen irakaslea da. Berau Ikastetxeko Zuzendariak izendatu eta kentzen du kargutik dagokion Etapako Zuzendariak proposatuta, eta Etapa horretako bertako Zuzendari Teknikoaren iritzia entzunda.

BIGARREN KAPITULUA: ORGANO BILDUA.

Lehen atala: Irakasle Taldea.

77. art.- Eraketa.

Irakasle Taldea, dagokion ziklo, kurtso edota taldeko irakasleek osatzen dute.

78. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Irakasle Taldearen eskumenak:

a) Kurtso edota zikloko jakintzagai arteko lotura egitea.

b) Klaustroari ebaluaziorako irizpide orokorrak proposatzea.

c) Proiektu, egokitzapen eta dibertsifikazio curricularren egitean laguntzea.

d) Ekimen eta esperientzia pedagogiko eta didaktikoak proposatzea.

e) Ikasleak ebaluatzea, hauen promozioaz eta Tituluak emateaz erabakitzea.

Bigarren Atala: Orientabide Mintegia.

79. art.- Eraketa.

Orientabide Mintegia ondoko kideok osatzen dute:

- a) Orientabide Koordinatzaileak.
- b) Etapako Zuzendari eta Zuzendari Teknikoek.
- c) Tutoreek.
- d) Aniztasunari eskaini beharreko arretaz bereziki arduratutako Irakasleak.

80. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Orientabide Mintegiaren eskumenak:

- a) Ikastetxeko hezkuntza-ekintzaren baitako orientabide jardueren egitea, gauzatzea eta ebaluazioa koordinatzea.
- b) Zentroko Organoei egokitzapen curricularrei, hezkuntza-errefortzu programei eta ikasleen ebaluaketa zein promozio irizpideei buruzko aholku teknikoak ematea.
- c) Ikasleei hezkuntza zein profesional mailako aukerei buruzko informazioa eta orientabidea eskaintzea.
- d) Eskola, profesional, dibertsifikazio curricular zein pertsonal mailako orientabide jarduerak, estrategiak eta programak egitea.
- e) Ikasleei luzatutako orientabide esku hartze programak gauzatzea.
- f) Ikasleen bakarkako ebaluaketa psikopedagogikoaren ebaluaketa egin, eta esku hartze proposamenak egitea.
- g) Orientabide, tutoretza eta irakaslegoaren formakuntza zein hobekuntza jarduerak koordinatu, lagundu eta euskarri teknikoa eskaintzea.

Hirugarren Atala: Beste Mintegiak.**81. art.- Eraketa.**

1. Mintegia, Ikastetxean arlo edota ikasgai bat edo gehiago irakasten dituen irakasle taldea da.
2. Ikastetxeko Zuzendaritzari dagokio Mintegiak sortu edota aldatzea.
3. Erljio Mintegia, Pastoral Kontseiluarekin koordinatu beharko da.

82. art.- Eskumenak.

Ondokook dira Mintegiaren eskumenak:

- a) Ikasturte bakoitzerako arloko curriculuen egitea koordinatzea, eremuko programazio bertikalaren koherentzia bermatuz.
- b) Klaustroari, dagokion arloari buruzko ebaluaketa irizpideak proposatzea.
- c) Proiektu, egokitzapen eta dibertsifikazio curricularren egitean laguntzea.
- d) Bere arloari lotutako ekimen eta esperientzia pedagogiko zein didaktikoak proposatzea.

83. art.- Beste Organo Bilduak.

Beste Organoei buruz hitz egitean, Kudeaketa Organoak ez izanik, egiteko zehatzetan Eskolaren funtzionamenduan laguntzen duten Organoez ari gara. Organo hauetako bakoitzak bere araudiaren arabera funtzionatuko du; hori bai, araudi honen lerro nagusiek bat etorri beharko dute Idearioak eta Araudi honek ezarritako Ikastetxeko hezkuntza-lerroarekin.

VI. TITULUA. ELKARBIZITZAREN UHERDURA

LEHEN KAPITULUA: ARAU OROKORRAK.

84. art.- Elkarbizitzaren balioa.

Ikastetxean elkarbizitza egokia izatea, ezinbesteko baldintza da Hezkuntza-Elkartea osatzen

duten kide desberdinen heltze progresiborako –bereziki ikasleenerako-, eta Hezkuntza-Elkarte osoarenerako oro har; ondorioz, bai eta Ikastetxeko helburuak lortzeko ere.

85. art.- Uherdura eta zuzenketa.

1. Zerbait egin edota ez egitearen ondorioz Araudi honetako 11. artikulua aipatzen dituen elkarbizitza arauak hausten dituzten Hezkuntza-Elkarteko kideek, Ikastetxeko elkarbizitza uhertzen dute.

2. Elkarbizitza uhertzen dutenak, indarrean dagoen legediak esaten dituen bitarteko eta bideak erabilia zuzenduko dira, hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoko Ikastetxe ez unibertsitarioetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko apirilaren 19ko 160/1994 Dekretua, eta Araudi hau bera erabilia.

BIGARREN KAPITULUA: IKASLEAK.

86. art.- Zuzenketa irizpideak.

1. Elkarbizitza uhertzen duten ikasleen zuzenketa, ondoko irizpideok hartuko dira kontutan:

a) Ikaslearen adina, egoera pertsonala, familiarra eta soziala.

b) Uhertzearen hezkuntza balorazioa.

c) Zuzenketaren izaera hezitzaile eta berreskuratzailea, ez soilik zigortzailea.

d) Zuzenketaren proportzionaltasuna.

e) Uhertzeak zein modutan eragiten dien Idearioaren, Ikastetxeko Hezkuntza-Proiektuaren, Etapako Proiektu Curricularren eta Ikastetxeko Urteko Programazio Orokorren helburu nagusiei.

2. Ikastetxeko material edota instalakuntzei, nahita edota axolagabekeriak kalteren bat eragiten dieten ikasleak, egindako kalte horiek konpondu edota berau konpontzeko ordaindu beharrekoa ordaintzera behartuta egongo dira.

3. Zuzen daitezkeen Ikastetxeko elkarbizitza arauen kontrako ekintzak ondoko hauek dira, hala nola, Ikastetxearen eremuan edota jarduera osagarri zein eskolaz kanpokoetan eginak, bai eta Ikastetxearen eremutik kanpo eginak izan arren Ikastetxeak eraginda edota beronekin harreman zuzena izan, edo ikaskideengan zein Hezkuntza-Elkarteko beste kideengan eragina dutenak.

4. Zuzenketa prozedurak ezin izango ditu inolaz ere ikaslearen intimitate, ohore edota izen onerako eskubideak urratu.

87. art.- Hutsegiteak, zigorrak eta prozedura-bermeak.

1. Ikasleen hutsegiteen larritasun handi edo txikiagoa, hauen helburu eta ondorioen

araberakoa izango da, bai eta asmo eta balizko berrerortze edota engainuaren araberakoa ere.

Hutsegiteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke. Larriztat hartu ahal izango da hutsegite arin askoren pilaketa, eta oso larriztat, berriz, larri askoren pilaketa.

2. Hutsegite arinei dagozkien zigorrak, ikasgaiko Irakasleak edota ikaslearen Tutoreak jarriko ditu. Hutsegite larriei dagozkienak, Etapako Zuzendariak edo Etapako Zuzendari Teknikoak, Eskola Kontseiluak bere esku utzita; hutsegite oso larriei dagozkienak, berriz, Eskola Kontseiluak Disziplina Batzordearen bidez.

Eskola Kontseiluak izendatuta espediente baten instrukzioaz, hau beharrezkoa denean, arduratuko den instruktorea, ikasleari dagokion Etapako Zuzendaria edota Zuzendari Teknikoa izango da.

88. art.- Disziplina Batzordea.

Batzorde hau ikaslearen Tutoreak, Etapako Zuzendariak (edo Etapako Zuzendari Teknikoak), Ikastetxeko Zuzendariak eta Eskola Kontseiluko hiru ordezkariak –irakasle batek, guraso batek eta ikasle batek- osatuko dute.

Beraz, Etapako Zuzendariak edota Zuzendari Teknikoak eskatu ondoren Ikastetxeko Zuzendariak deitutakoan bilduko da, aurrez ikaslea, bere gurasoak edo tutoreak eta tartean legokeen irakaslea (balego) entzun eta gero.

HIRUGARREN KAPITULUA: HEZKUNTZA-ELKARTEKO GAINERAKO KIDEAK.

89. art.- Zuzenketak.

1. Hezkuntza-Elkarteko kide desberdinek Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundearekin duten erlazioaren izaera berezitik (lan arlokoa, zibila, merkantila, kanonikoa,...) ondorioztatzen den erregulazioa alde batera utzi gabe, Hezkuntza-Elkarteko kideok eragin dezaketen elkarbizitzaren uhertzea Ikastetxearen Titulartasunaren jabe den Erakundeak zuzendu ahal izango du:

- a) Zigor pribatu bidez.
- b) Zigor publiko bidez.
- c) Zentroko instalakuntza, jarduera eta zerbitzuetara sarbidea mugatuz.

2. Ikasleen gurasoei ezarritako zuzenketek Kontseiluaren oniritzia beharko dute.

XEDAPEN ERANTSIAK

Lehena.- Lan harremanak.

Araudi honetan esaten dena alde batera utzi gabe, Titulartasunaren jabe den Erakundearen eta kontratatutako pertsonalaren arteko lan harremanak dagokion araudi zehatzaren bidez arautuko dira.

Horrez gainera, dagokion araudi zehatzaren bidez arautuko da enpresako langileen ordezkaritza.

Bigarrena.- Irakasle erlijiosoak.

Ikastetxean beren zerbitzuak eskaintzen dituzten erlijiosoei, Hezkuntza Kontzertuei buruzko Oinarrizko Arauen Araudiko Laugarren Xedapen Erantsian esaten dena aplikatuko zaie, Konstituzioak, espainiar Estatua eta Aulki Santuaren arteko Akordioek zein Erljio Askatasunerako Lege Organikoak babesten duten beren Estatutu zehatza alde batera utzi gabe.

I. ERANSKINA

IRAKASLE BERRIEN HAUTAKETA ETA KONTRATAZIOA

Irakasleen hutsuneen betetzea, ondoren zehazten den prozedurari jarraituz egingo da:

1. Hutsuneak lehenik horrela bete ahal izango dira:

- Titulartasunaren jabe den Erakundeak izendatutako marianista erlijiosoekin.
- Beren zerbitzuak egun osoz eskaintzen ez dituzten Zentroko irakasleen ordutegiaren zabaltzearekin.
- Titular bera duten beste Zentroetako irakasleen lekualdatzearekin.

2. Hutsunea aurreko atalean esandakoari jarraituz ez betetzea erabakiko balu, Titularrak publikoki emango du bete beharreko postuaren ezaugarrien eta eskatzaileek bete beharreko baldintzen berri. Eskaerak aurkezteko epea, berri ematea egin denetik astebetera amaituko da.

- Eskatzaileek “Eskaera orria” bete beharko dute, edo bestela curriculuma Ikastetxeko Idazkaritzan utzi.
- Dagokion Etapako Zuzendariaren ardura izango da, eskaera egin dutenei elkarrizketa egin ostean, aurre selekzioa egitea; 3 eta 6 artekoa izango da aurre selekzio honen ostean eskatzaile kopurua.

3. Probintziako Hezkuntza Batzordeak, Ikastetxeko Zuzendariarekin batera egingo du pertsonal hautaketa Eranskin honetako 5. atalean esaten diren irizpideak kontutan hartuz.

4. Ikastetxeko Zuzendariak Eskola Kontseiluari, betetako hutsuneen berri emango dio.

5. Eskaera desberdinak ebaluatzeko ondoko irizpideak hartuko dira kontutan:

5.1. Gaitasuna: Gaitasunaz zera ulertzen da, hala nola, egingo den lana betetzeko gaitasun legal eta fisikoa izatea, bai eta hezitzaile bati berez dagozkion gaitasun psikologiko eta pedagogikoak izatea ere: oreka, kezka zientifiko eta pedagogikoa, talde bat zuzentzeko gaitasuna, egokitze gaitasuna, lanbidea oniritzi eta hezkuntza estimatzea,...

5.2 Meritua: Hau baloratzeko, ondoko alderdiok hartzen dira kontutan:

- Irakatsi beharreko ikasgaiak menperatzea.
- Hezkuntzarekin lotura duten gaietan hobetze, eguneratze eta espezialtze ikastaroak egin izana; D.E.I. deritzonaren jabe izatea.
- Ikastetxean jarduerak egiteko gaitasuna izatea: kulturalak, aisialdikoak, kirol arlokoak, erlijiosoak,...
- Afizioz, atsegin dituelako egiten dituen beste jarduerak, abiltasunak,...
- Erreferentzia baikorrak.

5.3. Egokitasuna. Ikastetxearen Idearioari, Hezkuntza Proiektuari eta Ikastetxearen beraren ezaugarriei egokitzea.

II. ERANSKINA

ESKOLA KONTSEILUKO KIDEAK HAUTATZEKO ARAUAK

I. HAUTESKUNDE BATZORDEA.

1. Hauteskunde batzordea ondoko pertsonok osatuko dute:

- Presidente lanak egingo dituen Ikastetxeko Zuzendariak.
- Etapetako Zuzendariak.
- Irakasle batek, aita edo ama batek, administrazio eta zerbitzuetako langile batek eta ikasle batek; guztiak zozketa bidez hautatuak izango dira.

2. Ondokook dira Hauteskunde Batzordearen egitekoak:

- Hauteskunde-eroldak onartu eta argitaratzea.
- Hautagaiak onartu eta jakitera ematea.
- Hauteskunde-egutegia eta bozkatzeko ordutegia zehaztea.
- Egoki irizten badio, hauteskunde-paper ereduak onartzea.
- Hauteskunde-mahaien osaketa sustatzea.
- Hautatutako hautagaiak zein diren jakitera ematea.
- Hauteskunde-epe edota arauen edozein motatako aldaketa aztertu eta erabakitzea, horretara behartuko lukeen arrazoi larririk balego.
- Oro har, hauteskunde-prozesu guztia behar bezala joan dadin arduratzea.

3. Aurreko eskumenez gainera, Hauteskunde Batzordeak erreklamazioak entzun eta konpontzeko ardura izango du. Hauek idatziz egin beharko dira eta Presidenteari igorri, erreklamazioaren arrazoia zehaztuz. Erreklamazio hauek ondoko epeetan egin beharko dira:

- Hauteskunde-errolda: argitara eman eta bi egun beranduago.
- Hautagaiak: beren onarpen edota ezeztapenetik bi egunetara.
- Hauteskundeak: hautatutako hautagaien zerrenda argitaratzen denetik bi egunetara.

Hauteskunde Batzordeak, erreklamazioa aurkeztu eta ondorengo egunetik hasita bi eguneko epean hartuko du erabakia.

4. Ikastetxeko Zuzendariari dagokio Hauteskunde Batzordea osatzeko prozedurari hasiera ematea.

5. Hauteskunde Batzordeko kide izatea legokiokkeen norbaitek bere burua hautagai aurkeztea erabakiko balu, hutsik utziko du bere postua Batzorde horretan, eta I.1. atalean aipatzen den moduan zozketa bidez hautatutako ordezkari batek ordezkatu du.

II. HEZKUNTZA-ELKARTEKO ESTAMENTU DESBERDINETAKO ORDEZKARIEN HAUTESKUNDEAK.

1. Gurasoen ordezkarien hauteskundeak.

1.1. Ikasleen guraso guztiak edo tutoreak dira hautesleak. Hautesleen errolda, argi ikusteko moduan izango da agerian astebetetz.

1.2. Hauteskunde Batzordeak ofizialki ezagutzera emandako hautagaitzadun hautesleak izan daitezke hautagaiak. Hautagaitzak aurkezteko epea, hautesleen erroldaren erakustetarako ezarritako berbera da.

Edozein hauteslek aurkez dezake bere hautagaitza; horretarako, Hauteskunde Batzordea osatzen dutenetako edonori idatziz eman beharko dio horren berri.

1.3. Gurasoen Elkarteak Eskola Kontseiluko gurasoen lau ordezkarietako bat hautatu ahal izango du, aurrez Ikastetxeko Zuzendariari adierazita, eta hautagaiak aurkezteko epea baino lehen. Bete beharreko gainerako postuetarako, Gurasoen Elkarteak hautagai desberdinu bat aurkeztu ahal izango du.

1.4 Hautaketa ondoren zehazten den moduan egingo da:

Hauteskunde Mahaia ondokook osatuko dute, hala nola, Presidente lanak egingo dituen Ikastetxeko Zuzendariak, edota honek hautatutako ordezkariak, eta zozketa bidez hautatutako lau aita edo amak; azken hauetako batek Idazkari lanak egingo ditu. Zozketa berean lau ordezkari hautatuko dira:

- Hauteskunde-mahaia gutxienez lau orduz izango da zabalik.
- Bozka ematea pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da. Bozka-paper bakoitzean, aurkeztu diren hautagaien arteko bi izen idatzi beharko dira gehienez.
- Boto-kontaketa publikoki egingo da. Hauteskunde ekitaldiaz Idazkariak akta idatziko du, bertan hautagai bakoitzak eskuratutako boto kopurua zehaztuko delarik. Boto kopuruan berdinketa ematen denean, hautaketa zozketa bidez erabakiko da.
- Hauteskunde Batzordeak ontzat emango balitu lan, gaixotasun, ausentzia edo beste arazo edo arrazoi batzuk, hautesleek postaz eman ahal izango lukete beren botoa, Batzordeak berak ezarritako prozedurari jarraituz.

2. Irakasleen ordezkarien hauteskundeak.

2.1. Ikastetxeko irakasle guztiak dira hautesleak. Hautesleen errolda, argi ikusteko moduan izango da agerian astebetez.

2.2. Hauteskunde Batzordeak ofizialki ezagutzera emandako hautagaitzadun hautesleak izan daitezke hautagiak. Hautagaitzak aurkezteko epea, hautesleen erroldaren erakustetarako ezarritako berbera da.

Edozein hauteslek aurkez dezake bere hautagaitza; horretarako, Hauteskunde Batzordea osatzen dutenetako edonori idatziz eman beharko dio horren berri.

2.3. Hautaketa ondoren zehazten den moduan egingo da:

- Hauteskunde Mahaia ondokook osatuko dute, hala nola, Presidente lanak egingo dituen Ikastetxeko Zuzendariak, edota honek hautatutako ordezkariak, eta bi bokalek, zeinak Ikastetxeko hauteslerik antzinakoena eta berriena izango diren; azken honek Idazkari lanak egingo ditu. Antzinasun bereko bat baino gehiago baleude, lehen kasuan zaharrena egokiagozat joko da, eta gazteena bigarrenen.
- Hauteskunde-mahaia gutxienez bi orduz izango da zabalik.
- Bozka ematea pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da. Bozka-paper bakoitzean, aurkeztu diren hautagaien arteko bi izen idatzi beharko dira gehienez.
- Boto-kontaketa publikoki egingo da. Hauteskunde ekitaldiaz Idazkariak akta idatziko du, bertan hautagai bakoitzak eskuratutako boto kopurua zehaztuko delarik. Boto kopuruan berdinketa ematen denean, hautaketa zozketa bidez erabakiko da.
- Hauteskunde Batzordeak ontzat emango balitu lan, gaixotasun, ausentzia edo beste arazo edo arrazoi batzuk, hautesleek postaz eman ahal izango lukete beren botoa, Batzordeak berak ezarritako prozedurari jarraituz.

3. Ikasleen ordezkarien hauteskundeak.

3.1. Ikastetxeko Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiak dira hautesleak. Hautesleen errolda, argi ikusteko moduan izango da agerian astebetez.

3.2. Hauteskunde Batzordeak ofizialki ezagutzera emandako hautagaitzadun hautesleak izan daitezke hautagiak. Hautagaitzak aurkezteko epea, hautesleen erroldaren erakustetarako ezarritako berbera da.

Edozein hauteslek aurkez dezake bere hautagaitza; horretarako, Hauteskunde Batzordea osatzen dutenetako edonori idatziz eman beharko dio horren berri.

3.3. Ikasleen Elkarteek, baleude, hautagaitza desberdinak aurkeztu ahal izango dituzte.

3.4 Hautaketa ondoren zehazten den moduan egingo da:

- Hauteskunde Mahaia ondokook osatuko dute, hala nola, Presidente lanak egingo dituen Ikastetxeko Zuzendariak, edota honek hautatutako ordezkariak, eta zozketa bidez hautatutako bi ikaslek; zaharrenak Idazkari lanak egingo ditu.
- Hauteskundeak klaseetan egingo dira, ordu berean; presidente lanak Tutoreak eta Delegatuek, baleude, egingo dituzte, edota bestela zozketa bidez hautatutako bi bokalek. Klase bakoitzeko hauteskunde-emaitzak buru izan direnek sinatu eta

Hauteskunde Mahaiak jasoko ditu; honek, ondoren, bildu eta kontaketa orokorra egingo du.

- Bozka ematea pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da. Bozka-paper bakoitzean, aurkeztu diren hautagaien arteko izen bat idatzi beharko da gehienez.
- Hauteskunde ekitaldiaz Idazkariak akta idatziko du, bertan hautagai bakoitzak eskuratutako boto kopurua zehaztuko delarik. Boto kopuruan berdinketa ematen denean, hautaketa zozketa bidez erabakiko da.
- Hauteskunde Batzordeak ontzat emango balitu lan, gaixotasun, ausentzia edo beste arazo edo arrazoi batzuk, hautesleek postaz eman ahal izango lukete beren botoa, Batzordeak berak ezarritako prozedurari jarraituz.

4. Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkarien hauteskundeak.

4.1. Kontzertuan aipatu bezala irakasle-lana egiten ez duten pertsona guztiak dira hautesleak. Hautesleen errolda, argi ikusteko moduan izango da agerian astebetetz.

4.2. Hauteskunde Batzordeak ofizialki ezagutzera emandako hautagaitzadun hautesleak izan daitezke hautagiak. Hautagaitzak aurkezteko epea, hautesleen erroldaren erakustetarako ezarritako berbera da.

Edozein hauteslek aurkez dezake bere hautagaitza; horretarako, Hauteskunde Batzordea osatzen dutenetako edonori idatziz eman beharko dio horren berri.

4.3. Hautaketa ondoren zehazten den moduan egingo da:

- Hauteskunde Mahaia ondokook osatuko dute, hala nola, Presidente lanak egingo dituen Ikastetxeko Zuzendariak, edota honek hautatutako ordezkariak, eta bi bokalek, zeinak Ikastetxeko hauteslerik antzinakoena eta berriena izango diren; azken honek Idazkari lanak egingo ditu. Antzinasun bereko bat baino gehiago baleude, lehen kasuan zaharrena egokiagoztat joko da, eta gazteena bigarrenetan.
- Hauteskunde-mahaia gutxienez bi orduz izango da zabalik eskola orduetan.
- Bozka ematea pertsonala, askea, zuzena eta sekretua izango da. Bozka-paper bakoitzean, aurkeztu diren hautagaien arteko izen bat idatzi beharko da gehienez.
- Boto-kontaketa publikoki egingo da. Hauteskunde ekitaldiaz Idazkariak akta idatziko du, bertan hautagai bakoitzak eskuratutako boto kopurua zehaztuko delarik. Boto kopuruan berdinketa ematen denean, hautaketa zozketa bidez erabakiko da.
- Hauteskunde Batzordeak ontzat emango balitu lan, gaixotasun, ausentzia edo beste arazo edo arrazoi batzuk, hautesleek postaz eman ahal izango lukete beren botoa, Batzordeak berak ezarritako prozedurari jarraituz.

III. AZKEN XEDAPENA

1. Arau hauetan espreski azaltzen ez diren egoera guztietan indarrean dagoen legediak esaten duena aplikatuko da.